



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## II. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12  
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

### GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Hizkuntza irisgarritasuna:  
telebistaren digitalizazioa  
hizkuntza gutxituen mesede**

*Marijo Deogracias Horrillo*

125-130 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.02.15>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



## **Hizkuntza irisgarritasuna: telebistaren digitalizazioa hizkuntza gutxituen mesede**

Deogracias, Marijo

*NOR Ikerketa Taldea*

*mariajose.deogracias@ehu.eus*

### ***Laburpena***

Lan honek ikus-entzunezkoen irisgarritasuna eta itzulpengintza ditu abiapuntu, aukera ematen baitigute hizkuntza gutxituen presentzia bermatzeko, ikus-entzunezkoen esparruan. Entzumen- eta ikusmen-urritasunen bat duten pertsonen eduki audiobisualetara sarbidea ekarri die irisgarritasunak. Ikus-entzunezko itzulpengintzak, aldiz, edukien hizkuntza ulertzea ahalbidetzen du. Audiobisualaz gozatzeko modua aldatzen ari den aro digitalean, telebistan hizkuntza bat baino gehiago entzuteko aukera dago, eta erraztu egin da jatorrizko hizkuntzen kontsumo-modua. Egoera horrek bidea irekitzen digu, hizkuntza gutxituen ikuspegitik, araudi eta teknologia horiek baliatzeko euskara ikusezin izan ez dadin, ez telebistan, ezta zineman ere.

Hitz gakoak: irisgarritasuna, ikus-entzunezkoak, hizkuntza gutxituak

### ***Abstract***

*This research is based on audiovisual accessibility and translation, to guarantee the presence of minority languages in audiovisual media. Audiovisual accessibility allows the access to deaf and hard-of-hearing people to audiovisual contents. On the other hand, audiovisual translation enables the comprehension of languages. In this digital age where consumption of audiovisual content is changing, television is offering more than one language, and it makes the consumption of the original version easier. From the minority languages point of view, this reality opens new ways to avoid the invisibility of the Basque language on TV as well as at the cinema.*

*Keywords: accessibility, audiovisual media, minority languages*

### **1. Sarrera eta motibazioa**

Telebistaren digitalizazioak eta internetek ikus-entzunezko edukien eskaintza biderkatzeaz gainera, eduki horiek nahi beste hizkuntzatan eta pantailatan jasotzeko aukera ekarri dute: hizkuntzaren transferentzia-metodo teknologikoek bide eman digute garai batean pentsaezina zen eduki eta hizkuntza aniztetara. Hala ere, lan honek agerian utziko duenez, horrek guztiak ez du bermatzen hizkuntza gutxituen presentzia, ez telebistan, ezta zineman ere. Ez dira baliatzen teknologia-berrikuntzak, hizkuntza hegemonikoetatik harago, bestelako hizkuntzen mesedetan. Eta horrek talka egiten du Europar Batzordeak ezarritako hizkuntza aniztasuna sustatzeko helburuarekin. Izan ere, ze hizkuntza politika darabilte estatuek ikus-entzunezkoetan hizkuntza aniztasuna bermatzeko? Eta zineman eta telebistan ze neurri/teknologia abiarazi dira hizkuntza gutxituen presentzia ahalbidetzeko?

Ildo horretan, lan honek erakutsi nahi du ikus-entzunezko irisgarritasuna bermatzeko zein ikus-entzunezko itzulpengintzaren transferentzia linguistikoa gauzatzeko metodoek ahalbidetu dezaketela zinema- nahiz telebista-eduki eleaniztunen kontsumoa. Alegia, hizkuntza, jada, ez da oztopo ulertzen ez den ikus-entzunezkoa kontsumitzeko, entzumen- edo ikusmen-urritasuna ez den bezalaxe. Izan ere, eskubideak bermatetik harago, ikus-entzunezkoetan garatu den teknologia gauzatu du horietara sarbidea izatea era irisgarrian. Beraz, eta ikuspegi linguistikoari dagokionez, irisgarritasuna bermatu beharra dago, are eta gehiago hizkuntza gutxituen arloan, non hizkuntza handiagoen (hegemonikoen) hedatzea geroz eta errazagoa izaten ari den. Hala, telebistak, bigarren audio-kanalaren aukerari esker, gehitu egin du hizkuntza eskaintza, kasu gehienetan nazio-hizkuntza hegemonikoak diren arren (ingelesa, frantsesa eta alemana). Zinema-datuak ez dira oso desberdinak: Europan ekoiztutako pelikulek merkatu-kuotaren %33,6 lortu arren, gehien ikusten diren filmak ingelesez, frantsesez, alemanez eta gaztelaniaz dira (Glocal Cinema, 2015).

## 2. Arloko egoera eta helburuak

Gure ikerketa-proiektuaren hipotesia da ikus-entzunezko irisgarritasuna aukera dela hizkuntza gutxituen presentzia bermatzeko, baita hizkuntza nagusien merkatuetan ere. Bide ematen digute ekoizpen-hizkuntza (jatorrizko hizkuntza gutxitua) aitzakia izan ez dadin edukiaren jatorrizko audioa ezkutatzeko. Ikerketa-bide horretan, ezgaitasun sentsorialen bat duten pertsonen ikus-entzunezkoetara sarbidea izan dezaten ahalbidetzeko teknologiak leudeke, bai telebistan erabiltzen direnak (legez araututa daudenak), bai zinemarako metodo eta tresnak. Azpidatzi egokituak, audio-deskripzioa eta zeinu hizkuntza dira (Orero, 2007) aukera hori bermatzeko metodo ezagunenak. Ikus-entzunezko itzulpengintzan, ulergarritasun linguistikoa ahalbidetzeko, bikoizketa, azpidatziak eta voice-over deiturikoa dira erabilienak (Pedersen, 2011; Pérez-Ugena eta Coromina, 2005). Bien uztartzetik sortzen da irisgarritasun linguistikoa. Gaur gaurkoz eduki-transferentzia hori egiteko teknologiak garatze fasean diren arren, hizkuntza gutxituen presentzia bermatzeko balio dezaketela irizten diogu –zinema-aretoetan emanaldi irisgarriak eskaintzeko teknologiak oraingoz gutxi diren arren, eta EAEn, esaterako, aretoen %21ek bakarrik izan ekipo digitalak (Manias et al, 2017: 137)–. Beraz, ikerketak, guztiz teorikoa izan barik, esploratzeko proposamena ere izan nahi du, bai gure proposamena egingarri den aztertzekeo esperimenduak eginez, bai irisgarritasunaren kontzeptualizazio berrian sakontzeko. Xede horretan bidelagun izango ditugu teknologia zein irisgarritasuna bermatzeko garatu den araubide oro. Izan ere, irisgarritasunaz asko ikertu da ezintasun fisiko, sentsorial nahiz kognitiboak gainditzeko metodo gisa.

Tradizionalki irisgarritasuna oztopo arkitektonikoak gainditzeko modutzat ulertu bada ere (Díaz Cintas, 2010: 157), ezintasun sentsorialak dituzten pertsonen telebistara nahiz zinemara era errazean sarbidea izateko duten eskubidea onartu zuen Nazio Batuen Erakundeak (NBE, 2006). Mugarik Gabeko Telebistaren Europako Zuzentarauak (2009) bere egin zuen maxima hori, azpidatziak aginduz telebista publikoei eta hizkuntza-aniztasunaren printzipioan sakontzeko bide emanez. 2010/13/UE europar-zuzentarauak irisgarritasun zerbitzutzat jotzen ditu zeinu-hizkuntza, azpidatziak eta audio-deskripzioa; alegia, telebista digitalak berezko dituen elementu interaktiboak (CESyA, 2015: 31). Gaur egun, beraz, metodo horiek bermatzen dute ezgaitasun sentsorialak dituztenek informazio audiobisuala mugarik gabe eskuratzeko duten oinarritzko eskubidea –herri edo komunitate baten sistema sozio-kulturalean integratzeko giltzarri (Díaz Cintas, 2010: 158)–. Era berean, azpidatziek, hizkuntza-transferentzia metodo gisa, jatorrizko hizkuntza ulertzeko arazoak dituztenen ulergarritasuna bermatzeko balio dute.


Espainiar estatuan, 7/2010 Ikus-entzunezkoen Legeak agintzen du telebista publikoek edukien %90 azpidatzi behar dutela (pribatuek %75), eta astero 10 orduko audio-deskripzioa eskaini (pribatuek astero ordu bi). Egun azpidatzeko aginduarekin betetzen dute ikuskatutako telebista-kanal gehienek –ETBn gaztelaniazko albistegiak azpidatzen dira–. Bestetik, eta audio-hizkuntzari begira, legeak berak dio (5. artikulua), kultura- eta hizkuntza-aniztasuna bermatzeko, emisioaren %51 Europako ekoizpenak izango direla eta horren %50 Espainiako edozein hizkuntzatan ekoiztiak. Egindako neurketek erakusten dute telebista nagusienek emititzen dituzten edukiek gaztelania dutela hizkuntza nagusi, eta bigarren audio-kanalean ingelesa dela bigarren hizkuntza erabiliena (%13). Hizkuntza koofizialen presentzia erabat hondarrekoa da telebista jeneralistetan. Telebista publikoak deskonexio-tarteetan darabil galiziera eta katalana: emisio-orduen %1,7 (CNMC, 2014: 57). Euskara, oster, deskonexio-albistegiaren amaierako izenburuetara mugatzen da: gehienez ere 2 minutu, astelehenetik barikura. Beraz, edukiak hizkuntza koofizialekin eskaintzeko eta zerbitzu publikoari dagokion derrigortasuna betetzeko, “deskonexio-albistegietatik harago, telebista eskaintzaren barruan hizkuntza koofizialen erabilera sustatzeko gomendioa” ez da betetzen (CNMC, 2014: 144)–.

## 3. Ikerketaren muina

Telebista irisgarriaren garapena telebistaren beraren digitalizazio prozesuarekin bat gertatzen da, zeinak erraz iristeko metodoen inklusioa dakarren eta audio-seinale bat baino gehiago

emititzea ahalbidetzen duen. Ikerketa-helburuari jarraiki, ezinbestekoa da 2. audio-kanalaren hizkuntza identifikatzea. 2017ko urtarrilaren 17tik 25era bitartean, ETB1 eta ETB2, TVE1 eta La2, Tele5 eta Cuatro, zein Antena3 eta LaSexta kanalek dualean emititzen duten audioa aztertu da eta, metodo irisgarrien artean zeintzuk, zenbat eta zein hizkuntzatan diren ikuskatu da. Datuen arabera, espainola ez den hizkuntzen artean, ingelesa da nagusi 2. audio-kanalean, %13 (astean, 199 ordu); maila txikiagoan, alemana (16,9 ordu asteen) eta frantsesa (13,5 ordu asteen).

1. grafikoa. Hizkuntza nagusia eta bigarren audio-kanala telebistan, 2017ko urtarrila (%).




Beraz, emisioen %24 jatorrizko bertsioan entzun daitezke 2. audio-kanalean eta Espainiaz kanpoko produkzioei dagozkie. Saio-motari dagokionez, 2. audioa eskaintzen dutenen artean (jatorrizko bertsioa), fikziozkoak (film eta serieak) dira nagusi (%55), baina badira beste batzuk: lehiaketak (%4) eta kultura-erreportajeak (%22). Euskal Telebistaren ingelesezko eskaintza kategoria horretan sartzen da. Aipagarria da, era berean, “Hizkuntzarik ez” deitutako kategoria. Musika-emanaldiei eta berba egiten ez den umore-saioei dagokie. Grafikoa erakusten duenez, euskarazko kanal bakarra da bere hizkuntza nagusia gehien isilarazten duena: %25 (bataz beste, bost ordu eta erdi egunero). Gainerakoan: ETB2n %21, LaSextan %14, Antena3n eta Cuatron %10, TVE1n %9, La2n %8, Tele5n %6.

### 3.1. Hizkuntza kontsumo-ohiturak

Ez da ahaztu behar Espainia bikoizketa-estatua dela, hau da, bikoizketak tradizio handia duela zinemaren industrian, eta ez dela garatu jatorrizko bertsioaren kontsumo-ohiturarik. Europari begiratuta, ez dago joera bakarra azpidatzen nahiz bikoizketaren erabileran, ez telebistan, ezta zineman ere. Zinema-aretoetan azpidatzen alde egiten dute herrialde gehienek; ez, ordea, Espainian, Italian, Alemanian, frantsesez aritzen den Belgikan, Austrian eta italieraz ari den Suitzan (bikoizketa-herriak dira denak). Telebistari eragiten dioten hizkuntza-politikan, berriz, hainbat herrialde gehitzen dira bikoizketa-herrien zerrendara: Txekiar Errepublika, Hungaria, Eslovakia, Suitza eta Turkia (ikus 1. irudia):

### 1. irudia<sup>1</sup>. Azpidatziak eta bikoizketa, telebistan eta zineman



### 3.2. Irigarritasuna bermatzea Europan

Ikus-entzunezko irigarritasuna bermatzeko, Europako estatu-kideen artean askotariko arauak garatu dira. Gehienetan programa-kopuruari eta horien ezaugarri-teknikoei erantzuten diete; beraz, zerbitzu-emailearen borondatearen esku geratzen da eskaini beharreko zerbitzu irigarrien aukera (Martín, García eta Yelmo García, 2014: 32). Bulgaria, Bosnia-Herzegovina, Kroazia, Luxenburgo, Lituania eta Turkia estatuetan, esaterako, lege nahiko arinak egin dituzte; aldiz, Belgika (frantsesa nahiz flandriera hitz egiten den komunitateetan), Txekiar Errepublika, Irlanda, Polonia, Serbia, Eslovakia, Suedia eta Suitza herrialdeetan ondo zehaztutako arauak garatu dituzte, emisioaren zenbatekoak finkatuz, bai zeinu-hizkuntzan, bai audio-deskripzioan. Bestalde, batez bestekoa zehazten duten herrialdeen artean ere bada berezitasunik: batzuek emisio-orduka zehazten dute zenbatekoa (Belgikako frantses hiztun-komunitatea) eta beste batzuek, berriz, programa-kopuruaren arabera (Polonia, Eslovakia, Txekiar Errepublika). Badira saio-mota kontuan izanik zehazten dutenak ere (Grezia, Zipre, Belgikako flandriar hiztun-komunitatea, Finlandia, Malta, Serbia, Frantzia eta Irlanda) (MCG, 2007). Alemanian, ARD telebistan publikoan albistegi guztiak azpidatzen dira 2013ko abendutik (Cuéllar, 2016: 151). Britainia Handian –aitzindaria Europan (1970ean hasi zen)–, BBC telebista publikoak programazioaren %100 azpidatzen du, baita Channel4 kateak ere (OFCOM, 2015).

### 3.3. Hizkuntza gutxituak Europako telebistetan

Nazio-estatuak arautu izan dute nazio-hizkuntzen presentzia ikus-entzunezkoetan (Amezaga, 2014: 53-54) eta gehienetan hizkuntza hegemonikoa gailendu da ikus-entzunezko espazioan. Baina, izan teknologiak ahalbidetzen duelako, izan aldarrikapen sozio-politikoek eragin dutelako (irigarritasuna kasu), “kanal bat hizkuntza bat” eredia haustu egin da. “Audientzia prestuago egon behar da onartzeko hizkuntza-transferentzia metodoak geroz eta gehiagotan erabiltzeko, giltzarri baitira ordura arte jasotzeko aukerarik egon ez den saioetara iristeko” (Kilborn, 1993: 644). Hala, hizkuntza ofizial bat baino gehiago daukaten herrialdeek ere garatu dituzte hizkuntza aniztasuna bermatzeko arauak. Suitzan, Finlandian eta Letonian azpidatziak eta bikoizketa baliatzeko arau-multzoak daude indarrean. Hainbat hizkuntzaren artean aukera daiteke Errusian eta Estonian, zein Finlandian, non YLE telebista-kateak saioak suedieraz nahiz finlandieraz eskaintzen dituen (MCG, 2007: 124). Galeseko S4C telebista-kanala digitalizazioaz baliatzen da hizkuntza ulertzen ez dutenengana iristeko: programazioaren %80 ingelesez azpidatzen du eta %8, galeseraz (Amezaga, 2013). Gainera, S4C kanalaren edukiak *iPlayer* internet-aplikazioan gehitzeko apustuak publiko zabalagoarengana heltzea dakar (BBC, 2016: 59). Teknikak ahalbidetzen duen bide horri eutsi diote, bikoizketaren alternatiba gisa, hainbat herrialdek jatorrizko bertsioa azpidatzita eskaintzeko. Nahikoa da CC (closed captionin) aukera

<sup>1</sup> MCG-Peacefulfish (2007): “Study on dubbing and subtitling needs and practices in the European audiovisual industry” (Euskal Herriko mugak zehazteko aipatutako lana egokitu egin da).

aktibatzea etxeko telebista gailuan edo internet bidezko bideo-produktuetan (Talaván, Ávila-Cabrera eta Costal, 2016: 24). Irlandan ere teknologiaz baliatzen hasi dira audientziari hizkuntza-aukera emateko. Hemen, baina, audio-kanalen aukera baliatu dute zuzeneko errugbi-partidak ingelesez zein gaelikoz emititzeko; hizkuntza-hautua Saorview eta Sky plataformen bidez eginez (RTE, 2014: 54). Bestelakoa da Frantziako telebista publikoak euskarari eskaintzen dion tartea: urte osoan hamar ordu baino gutxiago emititzen dira euskaraz. Baina egoera alda daiteke, hango Estatu Kontseiluak arrazoia eman baitio Euskal Konfederazioari, eta adierazi baitu “France Televisions sozietate publikoak tokiko hizkuntzetan eginiko programen ekoizpen eta zabalpen zerbitzu publikoaren ardura duela” (Berria, 2017ko urtarrila). Ikusteko dago teknologiak zein leku hartuko duen asmo horretan.

Euskal Telebista sortu azpidatziekin egin bazen ere, handik eta 10 urtera (1993), “betiko baztertu ziren gaztelaniazko azpidatziak euskarazko kanalean” (Larrinaga, 2008). Alde batera geratu ziren ulergarritasunari laguntzeko azpidatzi interlinguistikoak. 1990ean, atzera agertu ziren, baina egokitutako azpidatzi intralinguistikoak (emisio-hizkuntzan). *Teleberri* albistegiak azpidatziak eskaintzen ditu, gaztelaniaz. Jatorrizko bertsoaren emisioa 2. audio-kanalean oso noizean behin gertatzen da: fikzioan ETB2n (frantsesez 319 minutu eta 1.134 ingelesez) eta dokumentaletan (373 minutu ingelesez, ETB1 kanalean).

### 3.4. Loreak eta Bypass film irisgarriak

Telebistan ez bezala, zineman ez dago irisgarritasuna bermatzeko agindurik, beraz, teknologiaren eskutik garatu dira emanaldi irisgarriak. Hori posible egiten duten tresnatako bat *Whatscine* aplikazioa da. Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateak garatutako mugikorretarako aplikazioa gorrei azpidatziak eta itsuei audio-deskripzioa helarazteko sortu zuten. Ikerketaren espermentazio-fasean, *Loreak* eta *Bypass* euskaraz sortutako pelikulen aldebereko emanaldi elebidunak egin ditugu, *Whatscine* baliatuta: aretoan filmak euskaraz erakutsi direnean aplikazioan bikoizketa eskaini dugu (2. audio gisa), eta alderantziz. Esperimentuan 141 lagunek parte hartu zuten, baina (arazo teknikoak tarteko) aplikazioa erabiltzeko aukera izan zutenek bakarrik osatzen dute gure lagina. Hala, euskarazko proiektioan izan zirenen %49k jarraitu zuen filma euskaraz; %43k, gaztelaniaz. Aldiz, gaztelaniazko proiektioan, %54k euskaraz jarraitzea hautatu zuen eta %37,5k, gaztelaniaz. Azkenik, ikusleen %7k hizkuntza biak tartekatu zituen. Beraz, gure laginaren %47k aplikazioa baliatu zuen aretokoa ez zen beste hizkuntzan jarraitzeko emanaldia. Hona, bada, obserbazioaren eta inkesta bidezko erantzunen azterketak emandako ondorio bi: 1) hizkuntza ez ulertzea ez da oztopo ikus-entzunezkoaz gozatzeko eta emanaldiak partekatzeko; 2) hizkuntza gutxituaren ikusgaitasuna bermatu da aplikazioaren erabilerari esker.

## 4. Ondorioak eta etorkizunerako norabidea

Egindako lehen esperimentuaren eta telebisten bigarren audio-kanalen neurketa-emaitez bide ematen digute ikerketa-lerro horretan sakontzeko, hizkuntza bat baino gehiago aldi berean transmititzea egingarri dela erakutsi baitu teknologia digitalak. Hala, teknologiaren beraren erabilgarritasuna neurtzea garrantzitsua den bezala, sinetsita gaude ikus-entzunezko irisgarritasunak balio duela hizkuntza gutxituek aukera izan dezaten hizkuntza hegemonikoak nagusi diren merkatuetan ikustarazteko, jatorrizko audioa ezkutatu gabe. Ez baitugu ahaztu behar European gehien ikusten diren 20 filmetik 18 ingelesez, frantsesez, alemanez edo espainolez direla (Glocal Cinema, 2015). Beraz, hizkuntza gutxituen jardun-esparrua zabaltzeko asmoan, eta etorkizunerako lerroak marrazte aldera, ikus-entzunezko irisgarritasuna bermatzeko metodoek eta baliabide teknikoek badute zeregina irisgarritasun linguistikoa ahalbidetzeko.

### Erreferentziak

Amezaga, J. (2013): “Euskal Telebista 30 urteren ostean”, *Jakin*, 194-154, 11-50.

——— (2014): “Hizkuntza gutxituak komunikazio espazio nazionalen aldaketen aurrean”, *Bat soziolingustika Aldizkaria* 92-93, 49-66.

BBC (2016): *A BBC for the future: a broadcaster of distinction*, Department of Culture Media & sports, London.

- Díaz Cintas, J. (2010): “La accesibilidad a los medios de comunicación audiovisual a través del subtítulo y de la audiodescripción”, *Cooperación y Diálogo*, 157-180.
- CESyA (2015): *Seguimiento del subtítulo y la audiodescripción en la TDT, 2014, Informe anual*, Madril: CESyA.
- CNMC (2016): *Informe sobre el cumplimiento de las obligaciones de servicio público por la corporación de radio y televisión española y su financiación año 2014*. CNMC, Madril.
- Cuéllar, C. (2016): “El subtítulo para sordos en España y Alemania: estudio comparado de los marcos normativos y la formación universitaria”, *Revista Española de Discapacidad*, 4 (2): 143-162.
- Europar Batasuna (2009): “Declaración sobre la inclusión de subtítulos en todos los programas de las televisiones públicas de la UE (2009/C 247 E/09)”, Bruselas.
- Eusko Jaurlaritza (2015): Glocal cinema: big stories, small countries [[https://www.sansebastianfestival.com/admin\\_img/documentos/glocal\\_Manifestua\\_euskaraz.pdf](https://www.sansebastianfestival.com/admin_img/documentos/glocal_Manifestua_euskaraz.pdf)] (Berrikusia: 2017/02/21).
- Kilborn, R. (1993): “Speak my language: current attitudes to television subtitling and dubbing”, *Media Culture and Society*, Vol. 15, 641-660, SAGE, London, Newbury Park and New Delhi.
- Larrinaga, A. (2008): Euskarazko bikoizketaren historia, *Senex 34*, EZIE.
- Manias, M.; Barreiro, M.S.; Rodríguez, A.I. (2017): “Public policies, diversity and national cinemas in the Spanish context: Catalonia, Basque Country and Galicia”, *Communication & Society* 30(1), 125-145.
- Martín García, Y.S.; Yelmo, García, J.C. (2015): “Estudio comparado sobre la regulación internacional de los criterios de elección de programación con medio de apoyo” in *VII congreso de accesibilidad a los medios audiovisuales para personas con discapacidad Madrid Real Patronato sobre Discapacidad*, Madril, 32-37.
- MCG-Peacefulfish (2007): *Study on Dubbing and Subtitling Needs and Practices in the European Audiovisual Industry: Executive Summary*, Paris/Londres.
- OFCOM (2017): Ofcom's Code on Television Access Services. [[https://www.ofcom.org.uk/\\_\\_data/assets/pdf\\_file/0020/97040/Access-service-code-Jan-2017.pdf](https://www.ofcom.org.uk/__data/assets/pdf_file/0020/97040/Access-service-code-Jan-2017.pdf)] (Berrikusia: 2017/02/19).
- ONU (2006): “Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad”. Bruselas [<http://www.un.org/spanish/disabilities/default.asp?id=497>] (Berrikuseta: 2016/01/20).
- Orero, P. (2007): La accesibilidad en los medios: Una aproximación multidisciplinar. *TRANS: Revista De Traductología*, (11), 11-14.
- Pedersen, J. (2011): *Subtitling norms for television. an exploration focussing on extralinguistic cultural references*. Amsterdam: Benjamins Translation Library.
- Pérez-Ugena y Coromina, M. (2005): Posibles enfoques en torno a la discapacidad en el derecho constitucional interno y europeo, in *TV digital e integración. ¿TV para todos?* Dykinson, Madril, 39-58.
- RtÉ, (2015), Annual Report & Group Financial Statements 2015, Ireland's National Public Service Broadcaster, Dublin.
- Talaván Zanón, N., Ávila Cabrera, J.J., & Costal Criado, T. (2016): *Traducción y accesibilidad audiovisual*. Ed. UOC, S.L., Madril.

### Eskerrak/Aipamenak

- Ikerketa UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren Tesiak Euskaraz egiteko Doktorego aurreko ikertzaileak prestatzeko 2015eko deialdiari esker gauzatu da eta NOR ikerketa taldeak Eusko Jaurlaritza Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntza jaso du (IT-881-16).
- Era berean, sinatzailea EU-VOS. Patrimonio Cultural Inmaterial. Para un programa europeo de subtítulo en lenguas no hegemónicas (Agencia Estatal de Innovación (CSO2016-76014-R) proiektuan parte hartzen ari da.